


14 zka 1994.eko Otsaila

# GEU GASTEIZ


Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria



14 zka 1994.eko Otsaila  
GASTEIZ  
GASTEIZ

**Ihauteriak**  
**kolore anitzeko jaia**





Euskara gure kulturaren oinarria da.  
Horrexegatik egunez egun aurrera  
goaz euskara arabar guztion  
hizkuntza izan dadin.



**NON - ZER**

- 4.** Bertsoak
- 5.** Badatoz... ihauteriak!
- 6.** Kalea mintzo
- 8.** Bazenekien?
- 10.** Erreportaia:  
Elkartrukaketak: lagun berri bat ezagutzeko.
- 12.** Euskaltasunean  
lagun • elkarrizketa
- 13.** Elkarrizketa:  
Xabier Santxotena
- 16.** Ikusitakoak
- 18.** Musika/liburuak
- 19.** Haurrak
- 21.** Kirolak: eskia
- 26.** Kultur agenda
- 28.** Denborapasak
- 29.** Sukalde txokotik
- 30.** Komikia



## Aurrera Ihauteriak!

irudimenaren barnean bueltaka dabilen beste pertsonaia hori izatera jolastuko dugu ase arte.

Ihauteria, entusiasmoaren matxinada da: jaiaren bidez Bastilla hartu, norbera eta norbere moztararen arteko «izan ala ez izan», baina dramarik gabe.

Egun hauetan desagertu egingo dira gure jokaera soziala arautzen duten lege guztiak, desagertu egingo dira txanpan kopa bateko burbuiak izango balira bezala.

Intelektualkeriak eta gizartearen traba guztiak alde batera utzita, ihauterietan eztanda egingo du gure griña guztien pirotekniak. Bizirik egoteak dakarren poztasuna kaleratuko dugu eta agian honek argituko du datorkigun errutina hertsia eta otzanaren iluntasuna. Kaleak luzatu egingo dira kolore anitzeko ibai bihurturik. Erotasun orokor honen partaidea izateak, barrutik sano egotearen ilusio bueltatuko digu.

**Elena Armengod**

Aktoresa

**G**asteiz, gure hiria, koloretako kalidoskopio bihurtuko da egun hauetan. Jantzi egingo da festaz, bukatzeaz dagoen negua urratuz. Ederra bezain arriskutsua, urtean zehar baztertu egiten dugun guzti horren bizi-iraupena ospatuko dugu: bizitzaren bultzada, bapatekotasuna, sexualitatea, arrazoirik gabe farre algaraka lehertzeko gogoia....

Ihauteria: maskara kentzen digun maskarada. Egun hauetan, gutako bakoitzak kendu egingo du eguneroko moztar aspergarria eta bere buruaren bestelako bertsio baten bila –estranbotiko eta dibertigarriagoa– abiatuko da. Bakoitza saiatuko da gehien gustatzen zaion alde hori exajeratzen eta besteak baztertzen.

Esperientzia berri bat izan ohi du, aukeratu duzun pertsonaiaren atzetik mundua ber asmatzea: pertsonaiaren belarriez entzun eta bere begiekin ikustea. Aurten, berriro ere, gure



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria

**GEU GASTEIZ**

Gasteizko Euskaldunon  
Aldizkaria

**1691 Postakutxa**  
**Tfnoa 26 25 92**

**GEU elkartearen babesarekin**  
5.000 Aleko Tirada

Lege-Gordailua VI-582/92

ISSN: 1133-0988

**Zuzendaria:** Joseba Gorostiza **Erredakzio-batzordea:** Iñigo Barruso, Xabier Etxaniz, Mikel Garmendia, Txema Millan, Patxi Salaberri **Kazetariak:** Leire Lopez de Aberasturi, Inaxio Lopez de Arana, Ismael Diaz de Mendibil, Olaz Irizar **Komikia:** Iñigo Sarasola **Maketazioa:** Blanka Agiriano, Alex Badillo **Publizitatea:** Martin Rezola **Argazkilariak:**

Lukas Etxeberria, Joseba Olalde, David Aguilar, Joseba Unzu, Josu Txabarri **Kolaboratzaileak:** Agurne Aizpitarte, Asier Garro, Txipi Ormaetxea

**Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Onati)

GEU GASTEIZek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako enantziak





**AINARA RAZKIN**

**Ihauteriak**

I

Kaleetan zehar entzuten dena da ihauterien gaia urte guztia hau itxoiten da iritsi da orain garaia aste osoan izango dugu bihotza guztiz alaia eta hau dena pasako zaigu delako kristoren jaia

II

Pertsona askok ez jakin arren zer doan bera jaztera nahiko izango da gure gorputzan jartzea sobran papera papera edo zakuak jantzi eta atera kalera kalean ongi pasa ondoren berandu iritsi etxera

“**Otsaileko eguzki bero eta abenduko izarrak; atzetik laster elur edo kazkabarrak**”

“**Otsailan lainoa noraino, elurra gero haraino**”

**HEMEROTEKA**

❑ «Askotan pentsatu dut etorkizuna emakumeena izango dela»

**Wal Kirste**

(Gasteizko Filologia, Geografia eta Historia fakultateko irakaslea)

❑ «Mitoak berrartu behar ditugu, galtzeko bidean dauden garai honetan»

**Alberto Bokus**

(Antzerki zuzendaria)

❑ «Rockari buruz inoiz egin ez den bezalako filme bat egin nahi nuke»

**Juanma Bajo Ulloa**

(Zinema zuzendaria)

❑ «Zoritxarrez, euskaraz ez daukagu argotik eta sortzen dena erdaratik dator»

**Xabier Amuriza**

(Bertsolaria)

# EUSKARAZ

- 2, 3 ETA 5 ORDUTAKO IKASTAROAK
  - MAILA GUZTIAK ETA EGA
- SAKONTZE ETA MINTZA TALDEAK
  - NEGU BARNETEGIA LESAKAN
- IKAS-TXIP (euskara ordenagailuz)

## MATRIKULA EPEA

GASTEIZ euskaltegia  
Errege Katolikoak, 15-C  
•Tfnoa: 28 89 22

PINTO euskaltegia  
Pintoreria, 74  
•Tfnoa: 28 97 80

ZALDIARAN euskaltegia  
Zaldiaran Plaza, 16  
•Tfnoa: 24 49 05





# Badatoz... IHAUTERIAK



**ZAILDU  
EZAIGUZU**



"DISEINU ESKLUSIBO ETA  
KALITATE BIKAINEZKO  
BETAURREKOEN BILA NABIL"  
MULTIOPTICASen Sara eta Berto  
eustura eskusibook

"GARANTIA OSOA  
ESKATZEN DUT"  
MULTIOPTICASen garantia  
txartelak EUROPAko  
3000 optiketan balio ditu.



"ETA PREZIO ONA,  
JAKINA"  
2.850 pta. bakarrik.

**MENDIA OPTIKAN  
ERRAZTUKO DIZUGU**

**2.850 pta.!**



**MENDIA OPTIKA**  
DESDE 1856 AZ GERO  
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)  
GASTEIZ



# Aurten, zertaz mozorrotuko zara ?



**Demetrio Lopez  
(jubilatua)**

1.- Edozein gauza, oraindik ez dute ezer pentsatu.ia urtero mozorrotu ohi naiz. Mozorro ez-arruntak ditut gogoko.

2.- Dena atsegin dut nik familia osoa ateratzen da mozorroturik, bilobak ere barne. Desfileak dira gehien gustatzen zaizkidanak. Nik uste hobera doazela.

**IHAUTERIAK** –egun bereziak izanda–aldeko zein kontrako amorratuak ditu. Ziur gaude lehenek gehingo handi bat osatzen dutela. Hala ere, egun alaitsu hauek direla eta, kalera atera gara gasteiztarrok festa hauek nola ospatzen dugun jakiteko eta zuei kontatzeko.

Hona hemen, egin ditugun galderak

*Ihauterietan zertaz mozorrotuko zara?*

*Egun hauetan zer da gogokoen duzuna?*

**Isabel Axpe  
(Langabetua)**



1.-Ez dakigu oraindik, behar-bada, rap kantari mozorroa jantzi-ko dugu. Duela 2 urte 60.eko hamakako jantzia erabili genuen. Iaz Kordobatarrez mozorrotu ginen.

2.-Giroa izaten dut gogokoen. Gu lagun artean ibiltzen gara. Jende guztia mozorrotzen da eta nor den nor ez duzu jakiten sarritan.



**Kepa Martinez de Albeniz  
(Irakaslea)**

1.- Oraindik ez dakit. Hor ari gara kuadrilan pentsatzen ia zertaz mozorrotuko garen. Iaz boxeolariaz mozorrotu ginen kuadrila osoa.

2.-Gehien gustatzen zaidana mozorrotzea da eta batez ere kaleko giroa. Jai hauetako onena horixe bera baita, kalean dagoen giro jatorra.

**azkarprint**  
Cercas Bajas, 4  
Tel. 27 92 51

**ZURE INPRIMATEGIA  
EUSKARAZ**

Kolorezko Fotokopiak  
ere egiten ditugu

**GASTEIZ**

**I N P R I M A T E G I A**

**CAFÉ  
PLATÓN**

Zaldiaran Enparantza, 10 • GASTEIZ





**Estibalitz Vazquez**  
(dependientea)

1.-Nik uste dut lagun guztiak monjaz mozorrotuko garela. Oraingoz hori dugu buruan baina auskalo! Iaz «vaquero»-z mozorrotu ginen eta duela bi urte zorginaz.

2.- Parrandan ibili eta ondo pasatzea da niri gehien gustatzen zaidana. Normalean, lagun guztiak elkarrekin ateratzen gara..

**Patxi Biskert**  
(Aktorea)



1.- Ez, ni ez nauk inoiz mozorrotzen, inoiz, beno, gogoratzen nauk bai txikitan bai baserrian, ikatzez eta lokatzez aurpegia margotzen genuela nolabait. Horrela joaten ginen baserriz baserri. Orduz geroztik ez nauk berriro mozorrotu.

2.-Bai gustatzen zaizkidak, aurtan ia ia hortxe ibiliko nauk. Ziur Brasilen izango naiz.



**Gorka Martxan**  
(Ikaslea)

1.-Aurtan, apaiz mozorrotuko naiz, aurreko urteetan «animadora» eta bestelako mozorro pila jantzi dut

2.-Jaia, martxa, tabernak, kalean dagoen mobida, hoberena horixe izaten da. Ihauterietan dena dut gustoko. Jaia da eta hori da inportanteena.

**Vicky Gomez**  
(begiralea)



1.- Santa Luzia auzuneko jendearekin atera ohi naiz eta aurtan auzuneko konpartsan irtengo naiz. «Mary Poppins» mozorroa jantziko dugu.

2.- Giroa, orduan ematen baitu jende guztia mozorroturik dabilela. Desfilea ere gustatzen zait: abestiak asmatzen ditugulako.

**Saloa Pujana**  
(Ikaslea)



1.-Oraindik ez dakit, oraindik ez dugu ondo pentsatu zertaz. Iaz «Wally»-z mozorrotu ginen. Badakizue «Non dago Wally» liburetako pertsonaia.

2.- Jaia egotea da gehien gustatzen zaidana. Bai, kalean

**GARNICA** 

**FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK**

Gorbea kalea 40 • Tfnoa: 24 18 73



# NOLA?

Oraindik ez duzula  
etxean jasotzen GEU  
GASTEIZ aldizkaria?  
Eta zeren zai zaude?...  
ez al dakizu dohain  
banatzen dela?  
Bete ezazu ondorengo  
laukia eta bidali 1.691  
posta kutxara.

## GEU GASTEIZ

aldizkaria etxean jaso  
nahi dut.

IZENA.....

DEITURAK: .....

KALEA:.....

Zenb: ..... Pisua: .....

Kode Postala .....

HERRIA: .....



26 25 92

# Bazenekien...?



*...Matxete Plaza XIX. mende  
hasieran eraiki zutela?*

*... Plaza hau hiriko alde  
zaharra eta berria elkartzeko  
asmotan burutu zela?*

*...Plaza honetako ezaugarriak  
nabarmenak ziren hozpera eta  
hezetasuna direla eta leku  
egokia zela fruta eta  
barazkiak saltzeko.*

*...Garai batean,  
soldaduentzako arropak  
konpontzen zituzten tailerrak  
bertan zeudela?*

*...1866. urtera arte, ganadu  
azokak bertan egiten zirela?*

*...Duela ez urte asko, Olarizu  
egunean sokamuturra egiten  
zela bertan?*

# arcaya

Portal de Villarreal, 22-24  
Tfnoa: 26 06 58  
Portal del Rey, 21

SOINUA  
IRUDIA  
ARGIZTAPENA  
ELEKTRAGAILUAK  
OPARIGAIK

DEIADAR  
GASTEIZ  
FANFARREA

Telefona: 23 17 13



**kide**

**APAINDURA**

Cercas Bajas, 27

Tfnoa: 14 41 95


GASTEIZ





# Elkartrukaketa:

lagun euskaldun bat ezagutzeko modu atsegina



**E**lkartrukaketa udarako ekintza interesgarria iruditzen bazaigu ere, ez dugu inolaz ere ekintza berri edo orijinala. Ehun urte baino gehiago pasa dira dirudun batzuen seme/alabak Ingalaterra edo Irlandara ingelesa ikastera joan zirenetik. Ordutik, gero eta neska mutil gehiago pasatzen dute uda familia ingelesekin ingelesa ikasteko asmoz. Ideia hau abiapuntutzat harturik, Aranzabela ikastolako zenbait haur familia euskaldunekin egun batzuk pasatzen hasi ziren duela bost urte.

**B**ost urte pasa dira Aranzabela ikastolako lehen haurrak Gipuzkoako zenbait herrixketara astebetetz joan ziren lehenengo aldi hartatik.

Elkartrukaketa horien helburua argia izan da hasieratik; giro erdaldunera ohituak dauden haurrak giro euskaldun batetan egun batzu pasatzea. Euskara ikastolatik atera eta euskaraz bizi daitekeela ikastea. Duela bost urteko uda hartatik hona 70 familia jarri dira martxan ekimen horren inguruan.

**Ardatz** itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ



ARTEPAN

Artisau Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37  
01005 GASTEIZ



OHoko 4.,5., eta 6. mailan dabilzan haurrek astebete pasatzen dute Gipuzkoako famili euskaldun batean. Ondoren haur gipuzkoarra Gasteiz aldera etortzen da beste astebete batez, hiriak eskeintzen dituen zerbitzu eta jolasez gozatzeko.

Urte hauetan ondorioak erabat baikorrak izan dira, gasteiztar haurrak ohitura hartzen hasi direlako gure hizkuntzan aritzeko. Familia euskaldunean astebete bakarra pasa arren hurrengo kurtsoan euskararekiko arintasun gehiago nabaritzen zaie haurrei.

“  
**Urte hauetako  
esperientzia guztiz  
baikorra izan da.**  
”

Urte hauetako esperientzia baikorra kontutan izanik GEU elkarteak elkartrukaketa berpiztea eta hedatzea pentsatu du, haurrentzat eta euskararentzat hain positiboak diren ekintza hauek Aranzabela ikastolara mugaturik gera ez daitezen.

Aurten, lehendabizikoz elkartrukaketa hauek egiteko gonbitea B eta D ereduko ikastetxe guztietara zabaldu zaie, eta zazpi dira dagoeneko baietza eman duten ikastola eta eskolak. Aurtengo udaran Aranzabela ikastolako hurrez gain, Odon Apraiz, Barrutia, Banbi, Ikasbidea, Lopez de Gereñu eta Umandi ikastetxeetako neska mutilek ere lagun euskaldun bat ezagutu eta euskaraz barra barra aritzeko aukera aparta izango dute.

Ez dugu inolako zalantzarik aurtengo esperientzia aurrekoak bezain ona izango dela. Hala izan bedi!



**MIKO**

izozkiak



**GUREA**

jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10  
Telefonoa: 24 59 33



# EUSKALTASUNEAN LAGUN



## BLANCA FZ. DE QUINCOCES

-Gasteizen jaio zen, 1963 Abendu-aren 12an.

-Hiriburuan bizi izan da beti.

-Iturritxun bizi da, Adurtza ondoan.

-Ezkondua, senarra eta ilobarekin bizi da.

-Graduatu soziala da: lan arazoez arduratzen da.

-Liburu eta aldizkariak ditu maite. Berak dioenez, "aldizkari espezializatuak, ez arrosak" Dekorazioa, landareak, igandeetako egun-karien eranskinak...

-Diren eta ez diren ziklista pila handiarekin du argazkia: Indurain, Marino, Merckx, Giuponi, Gorospe anaiak, Mauleon, Diaz de Otazu, Ibañez Loyo, Murga, Unzaga, Murgialdai, Cabestany, Martial Gayant... Van Lanckerrek berrizgerritik heldu eta ez zuen libratzen.

### Galdera: Duzun biziorik handiena?

Erantzuna: Ez daukat bizio fижorik. Oraintxe, lo egitea. Edo jatorduetan ardoa edatea. Urtekoa bada, La Puebla Labarkako "Covila" ardoa. Zaharragoa, Oiongo Vega Vieja gustatzen zait asko, 87koa.

### G. Bertutea?

E. Optimista izatea.

### G. Famatu adiskide baten izena?

E. Atrebentziarekin, Bernardo Atxaga. Adiskide ez dakit; ezaguna behintzat bai.

### G. Zer eskatzen diozu bizitzari?

E. Bakea eta zoriona.

### G. Gasteiz, Vitoria, Gasteiz-Vitoria ala Vitoria-Gasteiz?

E. Vitoria-Gasteiz jarriko nuke. Ohitura da.

### G. Jenio bizikoa ote zaitugu?

E. Bai. Bat-batean berotzen naiz, baina gero eta pazientzia handiagoa daukat.

### G. Momentuko kezkarik handiena?

E. Lana

### G. GEU elkartearen berririk bai?

E. Bai, zerbait entzun dut. Oso ondo iruditzen zait. Behar da. Batez ere Gasteizen, erdalduñegi da eta.

### G. Egunkari baten izena?

E. Asko. Euskaldunon egunkaria, El Pais, Correo...

### G. Telebista programa?

E. "Mel Rose Place". Hori da normalean ikusten dudana. Bestela "El películón".

### G. Oporrak non eta zertarako?

E. Bidaiatzeko. Gasteiztik kanpora. Berdin zait non, baina batez ere Hegoamerikan: Brasil, eta Cuba bisitatu ditut, baina Mexico, Guatemala, Costa Rica, Puerto Rico e.a. ikusi nahiko nituzke.

### G. Nor da sukaldari zuenean?

E. Gure etxea kooperatiba da. Goizean eta bazkalorduetan

ilobak eta senarrak. Iluntzean nik.

### G. Etxeko lanak nork?

E. Gehienak neuk egiten ditut, baina nahiago nuke bestek ere kooperatzea. Gustatuko litzaidake berdintasuna, baina oraingoz ez da egia. Utopia da.

### G. Nongo euskera duzu?

E. Auskalo! Batua? Azpeitiko pixka bat...

### G. Zerk ateratzen zaitu zeure onetik?

E. Gauza askok. Senarrak batzuetan.

### G. Depresioaren kontrako erremediorik?

E. Optimismoa.

### G. Jaki goxoren bat?

E. Arrain errea. Edozein. Txitxarroa bera adibidez.

### G. Liburu bat?

E. Mario Benedettiren zer edo zer. Atxagaren "Memorias de una vaca" "Obabakoak"... Euskaraz, Joan Mari Irigoien "Udazkenaren balkoitik".

### G. Aktoretik?

E. Harrison Ford.

### G. Txikitako oroitzapen ederren bat?

E. Azpeitian jolas egiten nuenean, etxe artean.

### G. Igande goizak zertarako?

E. Lehen, lo egiteko; edo etxean egoteko behintzat. Orain herriz herri ibiltzen naiz, baina ez sasoz jaikita, Iletatik atzera baizik.

### G. Zure gorputz-atalik politena?

E. Nire zangoak.

### G. Ametsik?

E. Lasai eta baketsu bizitzea; eta nire senarrarekin zahartzea.

### G. Gizarte arlorra etorrira, zer aldatuko zenuke?


E. Biolentzia.

### G. Hilda gero zer nahi zenuke jendeak zutaz esatea?

E. Honako hau: "Primerako neska motza izan zen".



# Xabier Santxotena, beldurrik gabe



**H**ogei urte egurrarekin lan egiten egon ondoren sortutakoaren erakusgarri diren hamabost eskulturekin erakusketa egitea erabaki du aurten Xabier Santxotena. Dagoeneko sortutakoak inoren influentziarik ez izateko haina ikasi duela uste du Arizkun jaiotako eskultore eta sukaldariak. Orain, bere eskulturek nortasun propioa dutela jakiteak ematen dion ziurtasunarekin prestatu du erakusketa hau. Hogei urte itxoin eta gero, beldurrik gabe.



# Hogei urteko lanaren emaitza ikusgai



“ Nere sendian egurra landu eta sukaldaritzan dabilen laugarren belaunaldikoa naiz ni. ”

Uren Biltegi Zaharrak hartzen du otsailak 14 bitartean Xabier Santxotena Gasteizen egin duen lehen erakusketa garrantzitsua. Duela hogeitabost urte Araban bizi den arren orain arte erakusketa kolektiboetan baino ez du parte hartu bertan.

Santxotena iritzi, “sortzaile bihurtu aurretik ikasteko hogei bat urte behar ditu edozein artistak”. Orain, berak ezarritako epe hori bete duenean hogei urteko lanaren emaitza pozik ikusten du Xabierrek: “Sortutako eskulturetan bide garbiak ikusten ditut, nik eraikitako mundua influentziarik gabe agertzen dela uste dut”. Gaztetandik egurrarekin lan egiten egon eta gero bere eskulturei nortasun propioa ematea lortu du duela hogeitabost urte Arabara etorritako nafarrak: “Horregatik, erakusketaren aurrean ere, lasai nago; eskulturak onak edo txarrak izango dira baina neuk sortu ditut den-denak”.

Segurtasuna lortu eta beldurra galtzeko orduan, Roberto Mata artista ezagunak eta Xabierrek lagun mina duen Jorge Oteizak garrantzi handia izan dute arizkundarrak aitortzen duenez. Mata erakusketa bat antolatu zuen Gasteizen duela bost urte eta orduan ikusi zituen nafarraren lanak. “Jatexera sartu eta nere lanak ikustean ‘hau zoragarria da’ eta ‘nork egin du hau?, galdetu zuen eskulturak besarkatzen zituen bitartean”.

## Oteizaren eskutik hasitako eskultorea

Xabier Santxotena azaltzen duenez, Mataren ahotik entzundako aholku eta iritziek indarra eman zioten, “horrelako

**KROS**  
**MARKO-JARTZEAK • POSTER ETA LAMINAK**  
 Santiago kalea, 39  
 ☎ 26 09 82

**zure euskal LIBURUDENDA**  
 Plaza Berria, 14  
 Virgen Blanca, 1  
 Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ  
**errikoia**



“**Sortzaile izan aurretik  
hogeitatu urte behar  
ditu artistak ikasteko**”

artista handi baten animoek laguntza izugarria ematen dute” esaten du arizkundarrak. Hala ere, Mata ez da Santxotenari laguntza eman dion artista bakarra. “Roberto Matak egun horretan lagundu zidan bezala Jorge Oteizak ere asko lagundu izan dit beti” adierazten du Xabierrek esker onez.

Izan ere, Jorge Oteizaren beraren gomendioz murgildu zen Santxotena eskulturaren munduan. “Berak nere lehenengo lanak ikusi eta ‘zuk eskulturak egin behar dituzu’ esan zidan” gogoratzen du Santxotenak. Lan harreman estuak mantendu dituzte beti bi artistek: “Jorgek nere lan guztiak ikusi ditu eta nahiko konforme dago nik egindakoarekin. Gainera nire eskultura batzuei berak jarri die tituloa”. Horretaz gain, lagun minak dira Jorge Oteiza eta Santxotena, arizkundarrak azpimarratzen duenez.

Beste lagun baten laguntza izan du eskultoreak Gasteizen ikusgai dagoen erakusketako eskulturak aukeratzeko. Latza egiten zitzaion arizkundarrari bere berrehun lan baino gehiagoren artean aukera egitea eta horregatik lan hori beste baten eskuetan utzi du. “Neretzat lan guztiak maitagarriak dira eta kanpoko batek ikuspuntu hobea duela uste dut” esan eta egindako hautaketarekin erabat ados dagoela azpimarratzen du Santxotenak.

**Oihaneko harri bizia**

“Oihaneko harri bizira hurbiltzen naiz, errespetuz, komunitate baten ingurune, oroitzapen eta milurteko historiaren kide den zerbait edota norbaitekin egonen banantz bezala,” idatzi du Xabier Santxo-

tenak erakusketaren berri ematen duen programan. Hala da. Eskultore nafarrak egurrekin lan egin du gehien bat, “noizean behin saltzeko asmoz egin ditudan txiki batzuk brontzezko pieza sortu baditut ere”.

Tamaina handiko egurrekin lantzea atsegin du Santxotenak: “ezpalez baino zuhaitzez lan egiten saiatzen naiz. Bitartekoak behar izaten dira horretarako, makinak eta... baina behin eginda gauza zoragarria geratzen da, ederra benetan”.



“**Nere burua eskultura  
eta sukaldaritzaren  
arteko konbergentzia  
izan da.**”

Xabier Santxotenak gainera egurra era tradizionalen lantzen ikasi zuen etxean. “Hau belaunaldiz belaunaldi pasatzen den tradizioa da eta nere sendian ni egurra landu eta sukaldaritzan dabilen laugarren belaunaldikoa naiz” azaltzen du eskultoreak.

Bere ustez, garai batean Euskal Herriko aitona guztiak eskultoreak zirela esan daiteke. Beraiek egiten zituzten hala-beharrez, etxerako eta lanerako behar zituzten tresna guztiak. “Etxeko eta laneko tresnak egiteko egurra erabili izan da Euskal Herrian zeramika baino gehiago, zurgintzak garrantzia izan du herri honetan”, nafarraren iritziz.

Azkenaldian aintzinako baserriko tresnetan oinarritzen ari da bere eskulturak egiteko orduan. “Oso mundu aberatsa daukagu arlo horretan eta ni tresna horiek eskultura bihurtzen lan egiten ari naiz” azaltzen du Xabierrek. Bere esanetan, “nik sortutako lanak abstraktoak izan arren ulerterrezak dira eta mundu horretan lan egin nahi dut, baserriko mundu aberatsetik gaiak ateraz”.

**Belaunaldiz belaunaldi  
jasotako tradizioak**

“Aita eta aitona partetik zurgintzarako joera jaso nuen bezala ama eta amaxiren laguntzaz sukaldaritzaren munduan murgildu” zen Xabier Santxotena. Egun, maila altua lortu du bai eskulturan baita sukaldaritzan ere eta arlo biak beharrezkoak ikusten ditu bere eguneroko bizitzarako. “Nere burua eskultura eta sukaldaritzaren konbergentzia izan dela uste dut” azaltzen du.

Sukaldaritzaren beharrezkoa duela aitortu eta “nere bizitza guztian hori egin dut eta horretan segitzeko asmoa dut” ziurtatzen du Santxotenak. Duela hogeitabost urte ireki zuen bere lehen jatetxea Araba aldean: “El Portalon-era etorri aurretik Trebiñon egon baikin eta horrenbeste denbora ez da alferrik pasatzen”. Gainera, orain sukaldaritzan jarraitzeko aitzakia polita du semeak ere horretan hasi baitira dagoeneko. Bostgarren belaunaldia izango da. □

Barrancal, 20 (Plaza) • Barrenkalea, 20 / Tel. 14 68 43  
01001 GASTEIZ

**axular**

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



# Elurra teilatuan



## HILABETE

honetan aurtengo  
lehenbiziko elurtea  
jasan –edota  
gozatu– behar izan  
dugu. Hozperoa ere  
zero azpitik ibili da.  
Lehenengoa bai,  
baina ez bide da  
azkena izango! Hala  
ere esaera zaharra  
gogoratuz: «Elur  
urte, gari urte»  
Hala izan bedi!





# Atzoko eta gaurko... ...IHAUTERIAK



**1915. URTEKO IHAUTERIAK** ospatzen ibili ziren gasteiztarrak. Gure hirian, garaia haietan tradizio handirik ez bazuten ere, zenbait ohitura mantentzen ziren. Esate baterako, Betoñora joan, erromeria gisa eta bertan farre eta algaraka ospatu jaiak. Goiko argazkian –1915. urtean Enrique Guinea argazkilaria egina– garai hartako neska-mutikoen konpertsak agertzen dira. Behean, iazko ihauterietan neska-mutikoen mozorroak.



## H2SO4: Zuzenerako jaiioak



**KRISIALDIA**, sasoi latzak, ideia berrien garaia, atsedetik gabeko lana, aukerak aurkitzeko saioak, musikalari berrien saioak, rock gogor eta arinaren uneak, konpromezurako egunak, urte gorriak gazteriak jasan behar dituenak, behin eta berriro aurrera, oztopoak aldentzen: horrela bizi dira gaurko musika talde berriak, eta H2SO4 ez da salbuespena.

Taldea jaioberria da, hala ere, hanka arinak ditu. Hamalau hilabete elkarrekin, zenbait kontzertu, abesti asko, lan handia, eta... bapatean, lehendabiziko diska izango den hori grabatzeko aukera.

H2SO4 —Cesar, Luis, Isi eta Juan— ez daude txantxetan. Apostu garbia egin dute: taldea aurrera atera. Musika da

euren aisialdi osoaren jaun eta jabe. Egunero entsaiatu, taldea sortzeko. Eta lortu egin dute. Araba eta Errioxa dira gaurko lekukoak, LPa kalean denean denok izango dugu euren abiadura handiko erritmoak dastatzeko aukera.

Grabaketa egin arren, zuzenerako taldea dela adierazi digute. Guk geuk frogatu dugu ez digutela

gezurrik esan: eskenatokian daudenean, ederto jotzeaz gain, entzuleekin komunikazioa lortzen dute. Zuzenean ez zaituztete aspertuko, inolaz ere. «Reality Show», «Fiebre española», «Punto y coma» eta «Txus» (La Polla Records-ek bere lehen LPan grabatu zuen abestia) bezalako kanteak ez dute pasibotasunik onartzen.

Musikak Hard Core-ari heltzen dio, hitzek punk-ari: zuzenak, mingotsak eta gordinak. Belarriei atsedetik txiki bat ematearren edo, Rap-aren doinua heltzen zaigu. Laster batu egiten dira soinu beltzak eta rock azkarra. Atsedena? Gazteak ez du atsedetik hartzerik. Adibide garbia H2SO4 taldean aurkituko duzu.

Joxemari/Txabi Arnal Gil

## LIBURUAK



**TXIKITIK  
HANDIRA**

### TXIKITIK HANDIRA

Mikel Mendizabal  
Antton Kazabon

276 orrialde

### AHOZKOTASUNA

#### 1. Hezkuntzan

Mikel Mendizabal  
Antton Kazabon

194 orrialde



EUSKAL HERRIKO  
ESKOLARTEKO

V. Bertsolari Txapelketa

### Euskal Herriko eskolarteko V. Bertsolari txapelketa

Lesaka, 1993

61 orrialde

**HILABETE HONETAN** aurkezten dizkizuegun 3 liburu hauek Ikastolen Elkarrekin (Euskal Herriko bertsolari Elkarrekin batera lehenengo liburuari dagokionez) zenbait instituzioren laguntzarekin egokitutako edizioak dituzue. Hiruak bertsolaritzaren inguruan, eta hiruek nolabait ikastoletako munduarekin loturik. Halere, bertsolaritzaz interesa duen edonork interesgarri aurkituko ditu.



**FAGOR**

**SUKALDEKO  
HALTZARIAK**

Manuel Iradier, 37

Tfnoa: 25 45 88

Faxa: 27 81 93

01005 - GASTEIZ



**ALBENIZ**  
MOBILIARIOA



Cercas Bajas, 8  
Telefonia eta Faxa 28 74 82  
01008 GASTEIZ



# BURUA

**1 OSATU** hitz piramideak adibidea jarraituz.


A		E	
ALA		E__E	
ASKA		E__E	
AMONA		E__E	
I	O	U	
I__	O__O	U__U	
I__	O__O	U__U	
I__	O__O	U__U	

**2 LAUKIA** lau zati egin, zati bakoitzeko zenbaki gehiaketak 30 ematen duelarik



8	2	9	7	7
4	7	3	9	4
16	8	7	1	5
6	3	10	1	3

**3 ESAN**, logikaz, zein den hurrengo domino fitxa:



**4 IPINI** falta diren zenbakiak

$$4 \times \_ + 2 = 22$$

$$\_ \times 2 + 21 = 45$$

$$32 - \_ + 8 = 20$$

$$5 + \_ \times 12 = 60$$

## ERANTZUNAK

**2**

3	1	10	3	6
5	1	7	8	16
4	9	3	7	4
7	7	9	2	8

**3**



**4**

Falta diren zenbakiak:  
5, 12, 20, 0.

Ondo pasa!

**UDABERRIA**  
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65  
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 63 12  
**GASTEIZ**

*ditare*

---

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ



# Animalia bidaiariak

## Tximeletak

Tximeletek, instektuak direnez, oso bizitza laburra dute eta orokorki esan daiteke beren migrazioetan joateko denbora baino ez dutela, etortzea ondorengo belaunaldiak egingo duelarik. Hala ere, badago ezpezie bat bira osoa, hau da, joan-etorria egiten duena.

...Baina goazen berriz gure Vanessaren-gana. Jatorriz Ipar Afrika aldetik dator. Udaberrian talde txiki eta gertu xamarretan biltzen dira itsas ondoan eta horrela, km. batzuz luze diren mordoak eratuz ipar alderantz abiatzen dira. Hamarka miloi banako biltzera ere heltzen dira.

Mediterraneo itsasoa zeharkatzen dute hegalaldi azkar eta zuzen batez, haizearen inolako laguntzarik gabe, gehienetan haren kontra joan behar izaten bait dute.

Maiatza aldean Europara heldu eta honetan zehar zabaltzen dira, batzuz Inglaterrako itsasertzeraino eta Eskoziaraino ere joaten direlarik. Beste batzuz ere urrutiago joaten dira: Ipar Finlandiako lurraldeetaraino eta baita Islandiaraino ere, Atlantiar Ozeanoaren gainetik hegan. Ausartienek 3.000 kilometrotako bidea egiten dute!



## Animalia migratzaileen abenturak

Liburu honek eman zion hasiera Gaiak argitaletxeko "Zientzia eta Natura" sailari. Liburu entretenigarria izateaz gain (ikusitako bestela ondoan dugun tximeletei buruzko zatitxoak) oso ondo idatzita dagoela esan behar da. Estilo arin eta egoki baten bidez, gaiak duen seriotasuna eta aldi berean zientifikotasuna baztertu gabe, egileak erraz irakurtzeko liburua idatzi du.

Liburua hamasei kapitulutan dago banaturik, eta hauek gai nagusi batzutan kokaturik (narrastiak, ugaztunak, hegaztiak,...). Testua ilustrazio eta argazkien bidez dago osaturik.

Liburu guztiz interesgarria animaliei buruz gehiago jakin nahi duen edonorentzat □

# IBUSGARÍ

Alfonbrak, mantak eta edredoak, narruzko arropak, berokiak eta lumazko aropetan espezializatuak

DOMINGO BELTRAN, 26 • JUDIMENDI, 20  
TFNOA 14 19 45 • 27 05 83 • GASTEIZ



## GORETTI

### ILEAPAINDEGIA

San Antonio, 29-Behea  
Tfno: 13 18 55  
01005 - GASTEIZ



# Gasteiz Pirineoetan egongo balitz...



**S**chneider, Girardelli edota Tomba ez dira gasteiztarrak. Euskal Herrian ez dago eski-estaziorik eta eskizale arabarrek kilometro asko egin behar dute elur bila. Hala eta guztiz ere, Arabako Eski Federazioak 1.500 fitxa ditu, zalantzarik gabe, Kirol Zuriak arabarron artean duen arrakastaren adierazgarri. Neguan, asteburuoro, ehundaka gasteiztar, goiz jaiki, eskiak hartu eta autobusa hartzera abiatzen dira Candanchu edo Astunerako bidean. Eския ez da kirol merkea, geroago ikusiko duzuenez.. Dena den, ez duzue zertan Girardelliren eskiak eraman, ezta gutxiago ere. Mendi taldeek ekipoa alokatzeko aukera ematen dute, honen truke ez duzu fidantza txiki bat baino ordaindu beharko.



**MENDI TALDEAK**

Ezaugarriak	PREZIOA	LEKUA
Hamar larunbat edo igande monitoreaekin	40.000 Pta	Candanchu edo Astun
Hamar larunbat edo igande monitorea gabe	32.500 Pta	Candanchu edo Astun
Bost asteburu hotela barne	32.500 Pta	Candanchu edo Astun

(\*) Beharrezkoa da taldekidea izan eta federatuta egotea  
Prezioan bidaia eta forfait barne dago

**BIDAIA AGENTZIAK**

Ezaugarriak	PREZIOA	LEKUA
Asteburu bat: bidaia, hotela eta forfait.	13.000-18.000 Pta	Candanchu edo Astun
Astebete bat: hotela forfait eta bidaia autobusez	60.000 - 75.000 Pta	Alpeak
Berdin baina hegazkinez	100.000-115.000 Pta	Alpeak

**SKY-WIND DENDA**

Ezaugarriak	PREZIOA	LEKUA
Martxoaren 4tik 12ra	50.000 Pta	Sestrières (Italia)
Martxoaren 25etik Apirilaren 2ra.	53.100 Pta	Les Arcs (Frantzia)
Apirilaren 1etik 9ra	51.400 Pta	Les Arcs (Frantzia)

(\*) Prezioan autobusa, apartamentua eta forfait-a barne daude

# Eskia: Kirol Zuria

**G**asteizen eskiaren bultzatzaileak, ezberri gabe, «Gasteiz Mendizaleen Bazkuna» eta «Club Alpino Alaves» izenekoak izan dira. Asteburuoro, bi talde hauek Candanchu eta Astun-erako autobusak antolatzen dituzte. «Gasteiz» taldearen kasuan, esan beharra dago hamar autobus betetzera heldu direla noiz edo noiz. Halere, honetan ere krisialdiak eragina izan du eta, ondorioz, aurtan lau autobus gutxiago –200 bat lagun, alegia– joaten dira Pirineo-etara.

Ondotxo dakigu eskia ez dela patrika guztientzat egokia. Kirol garestia da. Dena den, mendi taldeek eskeintzen dituzten bidaiak edozein pertsonaren posibilitateetara hurbiltzen dira. Begiratu prezioak eta konparatu: «Gasteiz Mendizaleen Bazkuna» edota «Club Alpino Alaves»-ekin joatea erabakiz gero, berrogei bat mila pezetaren truke izango duzu horretarako aukera. Prezio horretan hamar egunetako bidaia, monitorea eta forfait delako hura izango duzu eskura. Egun bakar batean, zure kabuz joatea erabakiz gero, ordea, 8.000 pezeta inguru ordaindu beharko diozu monitorea, horri forfait-aren 3.000 inguru gehitu beharko diozu, eta hori dena bidaiaren gastuak kontutan hartu gabe. Ezberdintasuna argi dago.

“ Gasteiztik 200 lagun inguru joaten dira astero eskiatzera ”

**Cerveceria  
Alemana**

SALTXITXAK  
KAZOLATXOAK  
SANDWICHAK

Gerardo Armesto, 3 • (Gasteiz etorbidearen ondoan) Tfnoa: 13 29 88 • GASTEIZ

KOADROAK  
MOLDURAK  
LAMINAK  
MARRAZKIAK

**zurbeltz**

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20



## Aukera berriak

Azken urte hauetan, fondo edo iraupenezko eskiak ere zaletu asko beregatu ditu. Mendi taldeak horretaz konturatu eta aukerri berri hori eskaini diete euren kideei. Euskal Herrian, lehen esan dugun bezala, ez dago eski-estaziorik. Hala eta guztiz ere dondoko eskian aritzeko oso leku aproposak daude. Urbasan, Aralarren, Andian edota Nafarroako Pirineoak oso egokiak dira horretarako.

Dena den, eskiak ez dira elurraren gainean ibiltzeko dauden tresna bakarrak, eta hau nabari gelditu da azken urte hauetan: surf, parapente edota zaldi gainean, asko dira elurretara hurbiltzen diren kirolariak. Elurra gero eta erakargarriagoa da, are gehiago betidanik mendizale izan direnentzat.



Betaurrekoak  
5.000-10.000 pta

Anoraka + praka  
20.000 pta

Eskularruak  
5.000-10.000 pta

Makilak  
3.000-5.000 pta

Finkapenak  
15.000-20.000 pta

Botak  
20.000-40.000 pta

Eskiak  
30.000-35.000 pta

**Merkea al da eskiatzea?**

*Muluma*  
**MASAIA - QUIROMASAIA**  
*Kote Zubizarreta*  
 Olagibel, 20 • Telefoa 25 92 06

**AZOKA**  
*deportivos*  
**Zure kirol- oinetakoak**  
 Gorbea 27      tfnoa: 24 22 05  
 Ariznabarra 17      tfnoa: 14 71 33



**Eskiak eta abar luze bat, dohainik**




Ekiptoak ere ez dira merkeak. Ikusi, bestela, grafikoan agertzen diren prezioak. Dena den, edozein mendi taldetako kide izateak baditu bere abantailak: eskiak, finkapenak eta botak dohain erabiltzeko aukera, besteak beste.

Hori horrela, eskia ez du zergaitik dirudunentzako kirola izan behar, are gehiago, merkea ere izan daiteke. Kirol honek makina bat dartada sortzen dio gorputzari: abiadura, naturarekiko hurbiltasuna, elurra bera,... Gasteizen 700 bat lagunek kirol hau aukeratzen dute asteburuoro. Zuk inoiz probatu ez baduzu, anima zaitetz. Zaletuek diotenez, eskia droga gogorra da. Agian ezin izango duzu inoiz utzi, berdín dio, merezi du eta. Araban ez dugu eskiatzaile famaturik izan, onak bai osterá. Horra hor, esate baterako, Jon Lorente gaztea edota Estatuko txapelduna izan zen Mikel Barcena. Zu hurrengoá izan zintezke. Zergaitik ez?

“Eskiatzera joatea ez du derrigorrez garestia izan behar, merkea ere izan daiteke.”



## Eskiatzailearen hamar aginduak

-  **1- KONTUTAN** izan kirol honek prestakuntza fisiko handia eskatzen duela.
-  **2- ERABILIKO DITUZUN** jantziak eta oinetakoak kirol honen ezaugarriei eta eguraldiari berari egokituak izan behar dira.
-  **3- KONTUZ EGUZKIAREKIN !** Eraman itzazu beti betaurreko ilunak. Ez ahaztu azala eta ezpainetarako krema ere.
-  **4- ESKIATZEN** duzun bitartean den-dena kontrolpean eduki behar duzu. Ez ahaztu!
-  **5- ARRETA OSOA** izan, Estazioko seinála eta oharpen guztiei.
-  **6- HAR EZAZU** beti kontutan zu ez zaudela bakarrik. Adi egon beste eskialarien ibilbideei eta ez egin trabarik.
-  **7- BESTE ESKIATZAILE BAT** zu baina mantsoago badator, errespetatu.
-  **8- ERREMONTEAK** hartzerakoan itxaron zure txanda.
-  **9- ESKIATZAILEREN BAT** erortzen bada, laguntza eskeini.
-  **10- ZORTE ON ETA ONDO PASA !**

# GEU GASTEIZ

Gasteizko euskaldunon aldirkariak

pertsona bat behar du  
publizitate-salmentan  
aritzeko

Interesatuok bidali itzazue zuen izen-abizena, helbidea, telefonoa eta kurrukuluma honako helbide honetara otsailaren 22a baino lehen:



**GEU GASTEIZ**  
1.691 Postakutxa  
**GASTEIZ**

Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 26 25 92 telefonora





**A**urten ere, jaia kalean izango da nagusi. Hiria mozorratu eta parrandagura nonahi. Orrialde hauetan jaia zertan gauzatuko den azaltzea ezinezkoa delakoan, Udaletxearen programaren berri emango dizuegu. Kontutan hartu, beti ere, kaleko giroa paperetan islada daitekeena baino gehiago dela.

## DANTZALDIAK

### 12, larunbata

20,30etatik 22etara eta  
13etatik 3etara  
23tik 3etara

• **IMAN ORKESTRA** Enparantza berrian

• **JOSELU ANAIK** Arka Plazan

### 13, igandea

13tik 15era eta  
19,30tik 22,30ra  
17etan

• **IMAN ORKESTRA** Enparantza berrian

• **AUSKALO TALDEA** Judimendiko polikiroldegian. Umeentzako dantzaldia eta mozorro lehiaketa.

### 15, asteartea

19,30etatik 22,30etara

• **DRAKKAR TALDEA** Enparantza berrian

... eta larunbat gauean hainbat fanfarre ibiliko dira erdialdean.



## IHAUTERIETAKO KONPARTSAK (desfileak)

### 12, larunbata

Arratsaldeko 7etatik aurrera. Desfilea EUROPA gizartetxetik aterako dira ibilbidea honako hau izango delarik:

Gasteiz etorbidea, Antso Jakituna, Lobaina, Magdalena, Prado, Andra Mari Zuriaren plaza, Mateo Moraza, Olagibel, Postas, Paz, Desanparadoak

### 13, igandea

Goizeko 12etatik aurrera VALLADOLID kaletik. Ibilbidea:

Valladolid kalea, Nafarroako Errege-erregina, Carlos I, Legutioko atea, Frantzia, Paz, Independentzia, Alava Generala, Dato, Enparantza Berria.

## ...eta gainera

• **Kale animazioa, larunbat eguerdian eta igande arratsaldean:**

Samaniego taldearen «un solo deseo» antzezlan, Balentziako «La Burbuja» taldea, Batuká Huó antzeztuko duena Pikor eta La Tirili taldeak ere izango ditugu ikusgai. Baia Panta Rhei taldearen ikuskizuna.

• **Asteartean, Dantzaldia bukatu ondoren:**

Jai bukaera





# ARABAKO ANTZERKI TALDEAK



## ERAKUSTALDIA



- 18, ostirala** • «Enbalados»  
Principal Antzokian 20,30etan  
Latirili Antzerki taldea
- 19, larunbata** • «El Testamento de Kairos»  
Principal Antzokian 20,30etan  
Amigos de San Francisco de Asis taldea
- 20, igandea** • «Zahino»  
Principal Antzokian 18,30etan  
Beñat Etxeparen 20,30etan  
Pan y chocolate taldea
- 22, asteartea** • «Las Criadas»  
Principal Antzokian 20,30etan  
Taller de Artes escenicas
- 23, asteazkena** • «La noche de las tribadas»  
Principal Antzokian 20,30etan  
Traste taldea
- 24, osteguna** • «Sade mon amour»  
Principal Antzokian 20,30etan  
Xirrika Taldea
- 25, ostirala** • «Agnes de Dios»  
Principal Antzokian 20,30etan  
Andreak taldea
- 26, larunbata** • «La Camisa»  
Principal Antzokian 18,30etan  
Beñat Etxeparen 20,30etan  
Lilibiritxi taldea
- 27, igandea** • «El Mago de Oz»  
Principal Antzokian 18,30etan  
Beñat Etxeparen 20,30etan  
Samaniego taldea
- 24, osteguna** • «Azucar y vinagre»  
Principal Antzokian 20,30etan  
Pikor taldea
- 24, osteguna** • «La Taberna fantástica»  
Principal Antzokian 20,30etan  
Fabe de Fuca taldea

KULTUR AGENDA



*Benito*

liburudenda

Benito Ginea, 2 • Tfnoa: 25 75 14  
GASTEIZ

★  
TABERNA  
JATETXEA

BITORIANO  
ZUIA • ARABA  
TEL. 43 00 73

ESPERANTO  
ELKARTEA

informa  
zaitetz!

Zapateria, 29 ☎ 22 00 71 (Natxo)







## MUSIKA

**8, asteartea • Flauta/gitarra**  
ARABA aretoan Ian Fawcett eta Daniel  
(Dendaraba) 8etan Sanz

**9, asteazkena • Pianoa**  
Principal Antzokian Kristian Zimerman  
8,30etan

**15, asteartea • Kontzertua**  
ARABA aretoan Glinka hirukotea  
(Dendaraba) 8etan

**17 osteguna • Opera**  
Principal Antzokian «Tosca». Europako  
8,30etan teatro lirikoaren eskutik.

**22 asteartea • Viola/Pianoa**  
ARABA aretoan Constan Witman eta  
(Dendaraba) 8etan Albert Nieto

## IHAUTERIAK EUSKARAZ

AEK, bagare, IKA,  
Fakultateko euskara batzordea

**Otsailak 11, ostirala**  
8etatik aurrera Gaztetxean  
Erromerixe

**Maixa, Itziar eta  
Garbiñe**

**Otsailak 15 asteartea**  
8etan Fariñas-en

**Bandoen arteko  
borroka**  
Mari Krixiren erreketak



# GEU re egunak

## «BAKE URRATSAK» mahai ingurua

### • PARTE HARTZAILEAK:

Gesto por la paz - Garraxi ixila  
Elkarri  
Amnistiaren aldeko batzordeak

### • MODERATZAILEA

Euskaldunon Egunkaria

*Eguna eta lekua  
jakinaraziko zaizue  
ADI EGON !*

BABESLEA

EUSKALDUNON  
Egunkaria

## IKERKETA BEKA



**URRETXU-ZUMARRAGAKO** Zintzo-  
Mintzo euskaltzale elkarteak bi herri hauek  
buruzko ikerketa lan bat egiteko beka sortu  
du. Gaiak ez du mugarik, hori bai, bi herri  
hauei buruzkoa izan behar du.  
Informazio gehiago nahi izanez gero, idatzi  
ezazu helbide honetara:


**ZINTZO-MINTZO** elkarteak  
Labeaga kalea 12, etxeazpia.  
20700 Urretxu  
Erreferentzia: IKERKETA BEKA

## ANBOTO

TABERNA - JATETXEA  
EGUNEKO MENUA

Kutxilleria, 29 - Tfnoa. 25 00 93 -  
01001 GASTEIZ

## J A T E T X E A



Kutxilleria, 26 tfnoa: 28 81 47  
•GASTEIZ

## “UPELA” MOTRI

SAGARDOTEGIA • ZALDITOKIA

Tfnoa: 908-67 31 08 ALAIZA (Araba)



# D E N B O R A P A S A

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	L	A	B	O	R	A	R	I	A	K
2	A	T	E		A	L	O			A
3	P	E	R	R	E	T	X	I	K	O
4		Z	E	I		A	A		O	S
5	R	A		B	A	I	L	E	N	
6	T	I	B	E	T		A		O	P
7	A	N	O	R	A	K		D		O
8	R		Z	A	L	E	T	G	A	K
9		O	K		K	A	T	E	M	E
10	A	N	A	I	A		O	N	A	R

## ZEHARRETARA


1. Nekazariak . 2. Sartzeko. Tolesdura. Lehena. 3. Ziza. 4. Unibertsitateko Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea. Kanpo. (Ald.) Astoa geldiarazteko. 5. Nora atzikia. Gudu famatu bat izana zeneko Andaluziako herria. 6. Txinako mendebaldeko eskualde autonomoa. Lehena. (Ald.) Polonioa. 7. Beroki mota. Danimarkako autoetan. Oxigenoa. 8. Konts. Afizionatuak. 9. Oso ondo. Katu ume. 10. Guraso bereko gizonezko senide. Onartu-ren infinitibo

## GOITIK BEHERA

1. Lapurdiko. Lehena. 2. Atea zaintzen duena. Txar ez. 3. Haren. Bozkatu-ren infinitibo. 4. Oxigenoa. Margolari-espainiar ospetsu bat. 5. Espainiako Erret Akademia. Zatikia. 6. Asiaren erdialdeko mendikatea. Tximinitatik gora. 7. (Ald.) Ballo handiko gauzen bilduma. Diminutibo atzikia. 9. Lehena. Irudi geometriko. Sortu zintuena. 10. Anabasa. Karta-joku

- 1-2: Lana ez du gustoko.
- 3-5: (Ald.) Jaia.
- 6-8: Baserrian lanerako erabili ohi ziren animaliak.
- 9-11: Krudel
- 1-3: Bailara.
- 4-6: Niri.
- 7-9: Goia.
- 10-12: (Ald) Aguro

**ZURUBI** Definizio guztiak asmatuz gero, Gasteizko auzo baten izena agertuko zaizu. Ekiozu, bada!



**ERANTZUNAK**

10	A	N	A	I	A		O	N	A	R
9		O	K		K	A	T	E	M	E
8	R		Z	A	L	E	T	G	A	K
7	A	N	O	R	A	K		D		O
6	T	I	B	E	T		A		O	P
5	R	A		B	A	I	L	E	N	
4		Z	E	I		A	A		O	S
3	P	E	R	R	E	T	X	I	K	O
2	A	T	E		A	L	O			A
1	L	A	B	O	R	A	R	I	A	K

1-2: Alter. 3-5: Besta. 6-8: Zurubi  
 1-3: Aran. 4-6: Neurt. Idiak. 9-11: Anker  
 7-9: Zerna. 10-12: Azkar

**JATETXEA ERRETEGIA** OKELA ETA ARRAIN ERREAK

Cantòn de San Fco. Javier, 4 • Tfnoa: 27 68 33 • 01001 GASTEIZ-

**HEGOALDE** euskaltegia

Florida 58, behe. Tfnoa. 284196 - 01005 GASTEIZ



## PORRUAK BETXAMELAZ

### Osagaiak: (4 lagunentzat)

- Porruak: 18 ale
- Esnea: litro erdi
- Gurina: 20 gr
- Irina: 20 gr.
- Urdaiazpiko egosia: 200 gr
- Gazta birrindua: norberaren gustora

### Nola egin:

Lehenago porruan ondo garbitu, zati berdea eta hariak kenduz. Uretatik pasatu eta azala kendu. Porruan bosnaka-seinaka lotu hobeto egosteko.

Ura irakiten hasten den momentutik 20 bat minutu itxaron, atera porruak eta ur hotzetan sartu.

Besamela prestatu. Badakizue, zartagin batean gurin urtua irinarekin nahastu. Ondoren –ondo nahastuta dagoenean– esne epela gehitu eta zurezko goilara batez mugitu ondo berdintzeko.

Porruak zatitu eta erretilu batean ipini, bexamelarekin estali, urdaiazpikoa eta gazta gaineratuz. Labean sartu gero.

## BISIGUA DONOSTIAR ERARA

### Osagaiak:

- Bisigua
- 6 ale baratxuri
- Oliba olioia
- Limoi handi bat
- Pipermina

### Nola egin:

Bixigua goitik behera ireki eta hezurak kendu. Ondoren ondo garbitu eta lehortu zapi batekin. Limoi ura eta olioia bota gainean eta ordubetez (gutxi gora behera) utzi. Bitartean grila edo plantxa berotu. Bisigua olioarekin igurtzi pintzel bat erabiliz. Egiten denean ontzi zabal batera atera. Zartaginean baratxuriak eta pipermina oliotan frijituko dugu.. Baratxuriak gorritzen direnean gatza eta limoi ura bota, baina kontu handiz, inguruak zipistinduko dituzu eta. Saltsa hau bero bero dagoela bota bixiguaren gainetik eta jateko prest egongo da.



## Bacalao Giraldo

- Egunero makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN

«Kalitatea eta erosotasuna zure esku»

Angulema, 2 - Tfnoa.: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa.: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran - Gasteiz





# SAGAR DOTEGI AN

GAUR BUEL-TATXO BAT EGINGO DUT.



JE JE, NEREA DUK!



80 Km. GEROA



SAGAR DOTEGI BAT!! HAU ZORIONA!!!



ORAIN JANA-RIA LORTU BEHAR DUT...



HAU BALO-GARRIA IZAINGO DA...



SAGARDO ONA, E?

BAI BAI

HEMEN IZKUTATUKO NAIZ, LASAI AFALTZEKO.



DEBE EZ SAK



0000...!



ITZULTZE-KO ORDUA DA JE, JE, JE



O, EZ! OSPA EGIN BEHAR DUTE



ITSARON MESEDEZ!!



EZ DAGO DENA GAL-DUTA!





# GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



## Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
ZERBITZU OROKORRAK	ARGIBIDEAK ETA HARRERATEGIA	Dato, 11	16 11 88	16 15 93
LURRALDE ANTOLAKUNTZA ETA INGURUGIROA	HIRI-HOBAKUNTZA (HIRITARREKIKO HARREMANAK)	Dato, 11	16 13 01	16 15 93
KULTURA		Machete plaza, z/g	16 12 75	16 12 77
O.K.U.S./DEMSAC	ADMINISTRAZIO-ATALA (OMIC)	Done Bikendi aldapa, z/g	16 12 40	16 12 51
HERRI-JARDUERA ETA LAN HARREMANETARAKO SAILA	EUSKARA	Espainia plaza, z/g	16 15 22	13 09 65
GIZARTE ONGIZATEA	ADMINISTRAZIO-ATALA	Espainia plaza, z/g	16 13 60	16 13 63
INFORMATIKA		Vera-Fajardo margolaria, 5	16 14 13	16 16 00
HEZKUNTZA	ARANBIZKARRAKO HAUR ESKOLA	José P. Ullibarri, z/g	28 16 35	
	EL PILARREKO HAUR ESKOLA	Caracas, 6	22 94 99	
	F.J. LANDABURU HAUR ESKOLA	F.J. Landaburu, z/g	28 35 45	
	HAURTZARO HAUR ESKOLA	Santa Maria kantoia, z/g	14 34 33	
	IZARRA-LA ESTRELLA HAUR ESKOLA	Astronomoak, z/g	28 44 95	
	OLARIZUKO HAUR ESKOLA	Dantzari plaza, 6	27 28 95	
	TXIMELETA HAUR ESKOLA	Ricardo Sacristán, z/g	22 46 34	
	SANTA LUZIAKO HAUR ESKOLA	Federico Baraibar, 17	28 82 25	
	TXAGORRITXUKO HAUR ESKOLA	Gasteiz hiribidea, 61	22 95 49	
	ZARAMAGAKO HAUR ESKOLA	Nafarroako erreg., 16-B	28 94 49	





Lortu azkar zure TeleCaja Joven  
ala honela geratuko zara!!!



08  
P5

Linea Gaztea

Caja Vital  Vital Kutxa

Etxebizitza erostekotan bazabiltza, negozioren bat zabaldu nahian edota kotxea erosteko edo oporrek egiteko kreditua eskatzeko asmotan... entzuidazu ala buruz behera ibiliko zara. Zatoz Caja Vital Kutxa Joven-era. Guretzako bereziki dituzten abantailak aprobetxatzeko aukera daukazu. Egin esandakoa, ni bezain zintzilik geratu nahi ez baduzu.